

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

530

EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 9koa, Trafiko zuzendariarena, 2026. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena.

Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak –Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzekoa berau– 18. artikuluan ezartzen duenaren arabera, zirkulazio segurua eta arina bermatzeko beharrezkoa denean edo ingurumenarekin lotutako arrazoiak daudenean, trafiko arloko agintaritzak dauka trafikoa erregulatzeko neurri bereziak hartzeko ahalmena. Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak –Zirkulazio Erregelamendu Orokorra onartzekoa berau–, besteak beste 37. eta 39. artikuluetan, neurri horietako batzuk zehazten ditu eta horiek hartzeko prozedura arautzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) eremuan, Trafikoko zuzendariari dagokio arestion aipatu diren neurriak hartzea, arau hauetan ezartzen denaren arabera: urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuaren eranskinaren B.1.g) atala (dekretu horren bidez transferitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoari trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko estatu-legeriaren betearazpena), eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 17.3.d) artikulua.

Ebazpen honen bidez, trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarri nahi dira, ibilgailu edo ibilgailu talde zehatz batzuetarako, egun jakinei begira, eragin berezia izan baitezakete bide-segurtasunean, mugikortasunena eta zirkulazioaren arintasunean. Egun horiek hainbat faktore kontuan hartuz aukeratu dira: esaterako, EAEko jaiegunen egutegia, asteburuak, oporren hasierako edo amaierako aldiak, jai-zubiak edo zirkulazioaren gainean eragina izan dezaketen bestelako inguruabarrak.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zirkulazio-murrizketak.

2026. urterako, EAEn, hemen zerrendatzen diren zirkulazio-murrizketak ezartzen dira:

1.– Kirol-probak, bizikleta-martxak eta beste ekitaldi batzuk.

Azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zirkulazio Erregelamendu Orokorrak 55. artikuluan eta II. eranskinean xedatzen duenaren arabera, Trafikoko lurralde-arduradunek ez dute inolako kirol-probarik edo bestelako ekitaldirik baimenduko (lehiaketa izan ala ez izan), ezta horien aldeko txostenik emango ere, baldin eta kirol-proba edo ekitaldi horiek egiteko, ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako egunetan eta orduetan, hiriarteko bide publikoetan, galtzadak eta bazterbideak okupatu behar badituzte.

Salbuespen gisa, kirol-proba, bizikleta-martxa eta beste ekitaldi hauek baimendu ahal izango dira:

– Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunak edo haren antzeko nazioz gaindiko organismo batek antolatutako nazioarteko ekitaldiak.

– Bi baldintza hauek batera betetzen dituztenak: irteera- edo itzulera-operazioengatik ibilgailu-intentsitate handia duten bideei ez eragitea, eta probara bertaratzeko nahiko agente egotea.

– Hauteskunde-prozesuekin batera egitekoak direnak, baldin eta boto-eskubideaz baliatu ahal izatea bermatzen bada, hauteslekuetarako sarbidea erraztuz, eta probara bertaratzeko nahiko agente badaude.

– Kirol-ekitaldien urteko egutegiaren arabera, murrizketak dauden egunetan egiteko aurreikusita dauden kirol-ekitaldiak.

2.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

2.1.– Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Akordioaren (ADR) arabera, arriskuaz ohartarazteko arauzko panel laranja edukitu behar dituzten ibilgailuek zirkulatzea debekatuta dago EAEko bide publiko guztietan, zirkulazioaren edozein noranzkotan, ondoko egun eta orduetan:

– Igande eta jaiegunetan (EAE osoan) 08:00etatik 24:00etara eta

– Jaiegunen bezperetan (EAE osoan), larunbatak ez badira, 16:00etatik 24:00etara.

Era berean, 7.500 kg-tik gorako GMBa daukaten ibilgailuak ebazpen honen II. eranskinean jasotako zirkulazio-murrizketen menpe ere egongo dira, salbu eta murrizketa-egunak igandeak, jaiegunak edo jaiegunen bezperak (larunbatak ez direnak) badira.

2.2.– Aurreko puntuan ezarritako debekuetatik salbuetsita daude ebazpen honen III. eranskineko salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuak, eranskinean xedatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

2.3.– Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek egin beharreko ibilbideak. Otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretuak, Espainiar lurraldeko errepideetan zehar salgai arriskutsuen garraioak arautzen dituenak, 5. artikuluan ezartzen duenaren arabera eta Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Akordioaren (ADR) arabera, salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek ibilbide hauek erabili beharko dituzte:

A) Amaierako erabiltzaileei edo kontsumitzaileei banatzeko egiten dituzten joan-etorrietan: Ibilbiderik egokiena erabiliko da, bide-segurtasunari zein trafikoaren arintasunari begira. Errepide arruntetan zehar ahalik eta distantziarik laburrena egingo da salgaia eman behar den lekuraino.

Biztanle-guneetatik kanpo ingurabiderik, saihezbiderik edo biribilgunerik badago, nahitaez erabili beharko dira. Horrelako aukera bat baino gehiago izatekotan, biztanle-gunetik urrutien dagoena erabili beharko da. Hirigunean zama lanak egiteko soilik sar daiteke eta, betiere, salgaiak emateko lekutik hurbilen dagoen sarrera erabilita, salbu eta ezinbesteko kausa justifikatua bada.

B) Beste joan-etorri batzuetan: joan-etorriaren jatorria eta helmuga Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarearen –SAIS– barruan badaude (ebazpen honen V. eranskinean dago), salgai arriskutsuak daramatzaten ibilgailuek nahitaez erabili beharko dituzte euren ibilbidean.

Joan-etorriaren jatorria edo helmuga (edo biak) SAISetik kanpo badaude, sare horretara martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen sarreratik sartzen uzten duten errepide arruntetatik egin beharko dira joan-etorriak, galtzada bakarreko bideetan egiten den ibilbidea ahalik eta laburrena izatea bermatze aldera. Arrazoi berbera dela bide, salgaien helmugatik martxaren noranzkoan eta hurbilen dagoen irteera erabiliko da SAISetik irteteko.

Hemen aipatu diren bideez bestelakoetan ibiltzeko, baimen berezia beharko da, eta baimen hori ebazpen honen bigarren atalean xedatutakoarekin bat etorritik emango da.

SAISetik irten daiteke gidariaren ohiko bizilekura edo handik egindako joan-etorrietan, eguneroko edo asteroko atsedenaldiak egiteko, eta ibilgailua konpontzeko edo mantentzeko lanetarako, edo garraio-enpresa dagoen lekura sartzeko, betiere ADRan zehaztutako segurtasun- eta babes-baldintzak betetzen badira. SAIS uzten den kasu hauetan, gidariaren helmuga den tokitik hurbilen dagoen irteeratik irtengo da.

2.4.– Aurreko puntuetan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta, zama mota, kopurua edo garraio mota dela-eta, salgai arriskutsuen garraioa ADRan jasotako salbuespenetakoren baten arabera egiten bada.

3.– Salgaien garraiorako ibilgailuak edo ibilgailu-taldeak, haien gehieneko masa baimendua (GMB edo ITGMB) 7.500 kg-tik gorakoa denean.

3.1.– Ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen GMBa 7.500 kg-tik gorakoa bada, ibilgailu horiek debekatuta daukate EAEko bide publikoetatik zirkulatzea II. eranskinean jasotako egun eta orduetan.

3.2.– Aurreko debekua ez zaio aplikatuko ebazpen honen IV. eranskinean adierazitako salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuen zirkulazioari.

4.– Zirkulazio-baimen osagarria behar duten ibilgailuak (haien ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zamaren ezaugarriengatik) eta zirkulazio-baimen osagarria behar ez duten ibilgailu bereziak.

4.1.– Ezaugarri teknikoak edo garraiatutako zama direla-eta zirkulazio-baimen osagarria behar duten ibilgailuek debekaturik izango dute bide publikoetatik zirkulatzea, lege ezarritako gehieneko masak edo neurriak gainditzeagatik (abenduen 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren 14. artikulua), egun eta ordu hauetan:

- Igande eta jaiegunetan (EAE osoan) 08:00etatik 24:00etara eta
- Jaiegunen bezperetan (EAE osoan), larunbatak ez badira, 16:00etatik 24:00etara.

Era berean, ibilgailu horiek ebazpen honen II. eranskinean jasotako zirkulazio-murrizketen menpe ere egongo dira, salbu eta murrizketa-egunak igandeak, jaiegunak edo jaiegunen bezperak (larunbatak ez direnak) badira.

4.2.– Zirkulazio-baimen osagarririk gabeko obra eta zerbitzuetako edo nekazaritza-makinariako ibilgailu bereziei ebazpen honen II. eranskinean jasotako murrizketak aplikatuko zaizkie.

4.3.– Hala ere, murrizketok ez zaizkie aplikatuko IV. eranskinean aipatzen diren salgaiak garraiatzen edo eginkizunak betetzen dituzten ibilgailuei.

5.– Murrizketa osagarriak.

5.1.– Ezusteko kasuetan edo aparteko gorabeheren kasuan, zirkulazioa seguruagoa edo arinagoa izateko beharrezkoa denean, trafikoaren zaintzaz eta diziplinaz arduratzen den agintaritzaren agenteek ezarriko dituzte murrizketok behar den denbora guztirako, eta, horretarako, beharrezko erabakiak hartuko dituzte. Hori guztia Zirkulazio Erregelamendu Orokorren 37. eta 39. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

5.2.– Gainera, meteorologia fenomeno kaltegarriak gertatzen direnean (elurra, izotza, ikuspen eskasa behe-lainoa dela-eta, edo haize bortitza...), ibilgailu zehatz batzuei ezar dakizkiekeen zirkulazio-murriztapenak eragotzi gabe, 3.500 kilotik gorako GMBa duten kamioiek, autobusek, autobus artikulatuek eta ibilgailu-taldeek bideko eskuineko erreitik zirkulatu behar dute nahitaez. Ezin izango dituzte aurreratu, ezta aurrea hartu ere, abiadura txikiagoan zirkulatzen duten ibilgailuak, aurreko paragrafoan aipatutako 37. eta 39. artikuluetan adierazitakoaren arabera.

6.– Bideko obrak etetea.

Trafikoaren ezaugarri bereziak direla eta, trafikoko operazio berezien egunetan eta ibilgailu asko batera mugitzen direnean, trafikoaren arintasuna eta bide-segurtasuna hobetze aldera, Trafiko Zuzendaritzak eta obren eraginpeko bideen organismo titullarrak elkarrekin koordinatuko dira obrak eteteko VI. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Hala ere, VI. eranskinean jasotako egun eta orduetan obrak egin behar badira, bidearen organo titularrak obra horien berri eman beharko dio Trafiko Zuzendaritzari, behar bezala arrazoituta eta behar besteko aurrerapenez.

Bigarrena.– Baimen bereziak.

Baimen bereziak bidaia bakar baterako eman ahal dira edo aldi baterako, ebazpen honetan jasotako ibilbideetatik eta murrizketa-egunetan zirkulatzeko. Baimen horiek emango dira premia nabarmena badago, aldez aurretik justifikatuta ibilbide eta aldi horietan zirkulatzea ezinbestekoa dela, Zirkulazio Erregelamendu Orokorraren 39.5 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Baimen berezi horietan matrikula, ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen ezaugarri nagusiak, garraiatzen den salgaia, egoeraren eraginpeko bideak eta garraioaren baldintzak agertuko dira.

Hirugarrena.– Zehapenak eta kautelazko neurriak.

Ebazpen honetan dauden neurri arautzaileak ez betetzea zehatu egingo da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera.

Era berean, trafiko-diziplina eta -zaintza arloko ardura daukan agintaritzaren agenteek ibilgailua bidetik kendu eta agindutako lekuan gordailuan utzi ahal dute. Neurri horiek ezarri ahal dira ibilgailuak arriskua eragiten duenean edo zirkulazioa larri nahasten duenean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginaren 105. artikulua ezartzen duenaren arabera.

Laugarrena.– Zirkulazioaren murrizketak salbuespenez kentzea.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak ebazpen honetan ezarritako murrizketen eraginpeko ibilgailuei zirkulatzeko utzi ahal die. Neurri hori salbuespenez hartuko da, zirkulazioaren baldintzak aintzakotzat hartuta, eta, ondorioz, jarraibide egokiak emango zaizkio Ertzaintzari.

Neurri hori Trafiko Zuzendaritzaren webgunean argitaratuko da, eta garraiolarien elkarte nagusiei edo haien parekoei jakinaraziko zaie.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea eta indarraldia.

Ebazpen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta zortzi egun baliodunera jarriko da indarrean eta 2026. urtean egongo da indarrean. Dena den, indarraldia luzatuko da 2027. urterako trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarriko dituen ebazpena indarrean sartu arte, salbu eta I. eta II. eranskinetako data zehatzei dagozkien murrizketen kasuan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 9a.

Trafiko zuzendaria,
ESTIBALIZ OLABARRI GONZALEZ.

I. ERANSKINA

KIROL-PROBAK, BIZIKLETA-MARTXAK ETA BESTE EKITALDI BATZUK

Hauteskunde-prozesuak, erreferendumak, plebiszituak edo bestelako herri-kontsultak dauden egunetan, 00:00etatik 24:00etara, eta egun hauetan:

Eguna	Orduak	Lurraldeak
Urtarrilaren 1a, osteguna	00:00 - 24:00	EAE
Urtarrilaren 2a, ostirala	15:00 - 24:00	EAE
Urtarrilaren 6a, asteartea	00:00 - 24:00	EAE
Martxoaren 18a, asteazkena	15:00 - 24:00	EAE
Martxoaren 19a, osteguna	00:00 - 24:00	EAE
Martxoaren 22a, igandea	00:00 - 24:00	EAE
Apirilaren 1a, asteazkena	15:00 - 24:00	EAE
Apirilaren 2a, osteguna	00:00 - 24:00	EAE
Apirilaren 3a, ostirala	00:00 - 24:00	EAE
Apirilaren 6a, astelehena	00:00 - 24:00	EAE
Apirilaren 28a, asteartea	00:00 - 24:00	Araba
Apirilaren 30a, osteguna	15:00 - 24:00	EAE
Maiatzaren 1a, ostirala	00:00 - 24:00	EAE
Maiatzaren 3a, igandea	00:00 -24:00	Bizkaia
	15:00-24:00	Araba Gipuzkoa
Maiatzaren 8a, ostirala	00:00 -24:00	Gipuzkoa
Maiatzaren 14a, osteguna	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Maiatzaren 25a, astelehena	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Ekainaren 26a, ostirala	15:00 – 24:00	EAE
Ekainaren 27a, larunbata	00:00 - 15:00	EAE
Uztailaren 14a, asteartea	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Uztailaren 24a, ostirala	15:00 - 24:00	EAE
Uztailaren 25a, larunbata	00:00 - 24:00	EAE
Uztailaren 30a, osteguna	15:00 - 24:00	EAE
Uztailaren 31, ostirala	15:00 – 24:00	Araba
	00:00 - 24:00	Bizkaia Gipuzkoa
Abuztuaren 1a, larunbata	00:00 - 24:00	Araba
Abuztuaren 2a, igandea	00:00 - 24:00	Araba
Abuztuaren 15a, larunbata	00:00 - 24:00	EAE
Abuztuaren 16a, igandea	15:00 - 24:00	EAE
Abuztuaren 30a igandea	00:00 - 24:00	EAE
Urriaren 9a, ostirala	15:00-24:00	EAE
Urriaren 10a, larunbata	00:00-15:00	EAE
Urriaren 12a, astelehena	15:00-24:00	EAE
Azaroaren 1a, igandea	00:00 - 24:00	EAE
Azaroaren 11, asteazkena	00:00 - 24:00	Gipuzkoa
Abenduaren 4a, ostirala	15:00 - 24:00	EAE
Abenduaren 5a, larunbata	00:00 - 15:00	EAE

Eguna	Orduak	Lurraldeak
Abenduaren 6a, igandea	00:00 - 24:00	EAE
Abenduaren 8a, asteartea	00:00 - 24:00	EAE
Abenduaren 24a, osteguna	00:00 - 24:00	EAE
Abenduaren 25a, ostirala	00:00 - 24:00	EAE
Abenduaren 31, osteguna	00:00 - 24:00	EAE
2027ko urtarrilaren 1a, ostirala	00:00 - 24:00	EAE
2027ko urtarrilaren 3a, igandea	15:00-24:00	EAE
2027ko urtarrilaren 6a, asteazkena	00:00 - 24:00	EAE

II. ERANSKINA

SALGAIK, OROKORREAN, ETA SALGAI ARRISKUTSUAK

EAEko errepideetatik 7.500 kg-tik gorako GMBko ibilgailuek murrizketa hauen arabera zirkulatuko dute:

1. Uda garaian.

Ekainaren 6tik irailaren 6ra arte, 7.500 kg-tik gorako GMBko ibilgailuek debekatua dute zirkulatzea:

a) Larunbatetako, igandeetako eta jaiegunetako 11:00etatik 14:00etara, errepide hauetatik:

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Treviño	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Treviño	321 Burgos	Burgos

b) Igande eta jaiegunetan arratsaldeko ordutegian bide hauetatik:

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P..	Noranzkoa	Orduetgia
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao	16:00-22:00
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Treviño	Vitoria-Gasteiz	16:00-21:00
A-1	Madril-Irun	336 Treviño	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz	16:00-21:00

2. Data zehatzak.

7.500 kg-tik gorako GMBko ibilgailuek debekatuta dute zirkulatzea bide publiko hauetan, hemen adierazitako egun eta orduetan:

1.– 17:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Martxoaren 18an, ekainaren 26an, uztailaren 24an eta abenduaren 4an.

11:00etatik 14:00etara egun hauetan:

Martxoaren 19an, ekainaren 27an, uztailaren 25ean, abenduaren 5ean eta 2027ko urtarrilaren 2an.

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia/Santander	107	120,690	Kantabria
BI-3724	Lehenko N-634 (Barakaldo-EI Bao)	120,690	128,120	Kantabria
BI-734	Lehenko N-634 (EI Bao- Kantabriako muga)	128,120	136,140 Kantabria	Kantabria

2.– 16:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Martxoaren 22an, azaroaren 1ean, abenduaren 6 eta 8an, 2027ko urtarrilaren 6an.

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
BI-734	Lehenko N-634 (El Bao-Kantabriako muga)	136,140 Kantabria	128,120	Bilbao
BI-3724	Lehenko N-634 (Barakaldo-El Bao)	128,120	120,690	Bilbao
N-634	Donostia/Santander	120,690	107	Bilbao

3.– 17:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Apirilaren 1ean, abuztuaren 14an eta urriaren 9an.

10:00etatik 15:00etara egun hauetan:

Apirilaren 2an, abuztuaren 15ean eta urriaren 10ean.

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia/Santander	107	120,690	Kantabria
BI-3724	Lehenko N-634 (Barakaldo-El Bao)	120,690	128,120	Kantabria
BI-734	Lehenko N-634 (El Bao-Kantabriako muga)	128,120	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantauri	83,20	77,20	Burgos
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	4,9 Araba	Vitoria-Gasteiz

4.– 17:00etatik 21:00etara egun hauetan: uztailaren 31n.

10:00etatik 15:00etara egun hauetan: abuztuaren 1ean.

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	119,5	139,21 Kantabria	Kantabria
N-634	Donostia/Santander	107	136,140 Kantabria	Kantabria
BI-3724	Lehenko N-634 (Barakaldo-El Bao)	120,690	128,120	Kantabria
BI-734	Lehenko N-634 (El Bao-Kantabriako muga)	128,120	136,140 Kantabria	Kantabria
AP-1	Burgos-Kantauri	83,20	77,20	Burgos

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-1	Madril-Irun	352 N-622 lotunea	336 Trebiñu	Burgos
A-1	Madril-Irun	329 Trebiñu	321 Burgos	Burgos
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	55,77 Bizkaia	23,08 Bizkaia	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Araba	10 Araba	Vitoria-Gasteiz
N-622	Altube / Vitoria-Gasteiz autobia	7,6	4,5	Vitoria-Gasteiz

5.– 16:00etatik 21:00etara egun hauetan:

Apirilaren 6an, abuztuaren 31n eta urriaren 12an.

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-8	Kantauriko autobidea	139,21 Kantabria	119,5	Bilbao
BI-734	Lehengo N-634 (El Bao – Kantabriako muga)	136,140 Kantabria	128,120	Bilbao
BI-3724	Lehengo N-634 (Barakaldo-El Bao)	128,120	120,690	Bilbao
N-634	Donostia/Santander	120,690	107	Bilbao
AP-1	Burgos-Kantauri	77,20	83,20	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
A-1	Madril-Irun	321 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	23,08 Bizkaia	55,77 Bizkaia	Bilbao
N-240	Tarragona-Bilbao Barazarretik	4,9 Araba	23,08 Araba	Bilbao

6.– Bezperako 22:00etatik egun hautetako 22:00etara:

Apirilaren 6an, maiatzaren 8, 14 eta 25ean, uztailaren 14an eta azaroaren 11n.

Murritzapen honek mugaz haraindiko garraioari baino ez dio eragiten.

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
AP-8	Kantauriko autobidea	100 Amorebieta	0 Frantziako muga	Behobia
GI-20	Donostiako saihesbidea	15,572 AP-8ko lotunea Aritzeta	0 AP-8ko lotunea Errearteria	Frantzia
A-15	Nafarroa-Gipuzkoa autobia	139,7 Nafarroa	156,560 N-leko lotunea	Andoain
AP-1	Vitoria-Gasteiz – Eibar autobidea	102,700 Etxabarri-Ibiñako ordainlekua	146,150 Maltzagako lotunea AP-8arekin	Irun
A-1	Madril-Irun	321,4 Burgos	329 Trebiñu	Vitoria-Gasteiz

Bidea	Izena	Hasierako K.P.	Amaierako K.P.	Noranzkoa
A-1	Madril-Irun	336 Trebiñu	352 N-622 lotunea	Vitoria-Gasteiz
N-I	Madril-Irun	405,450 Nafarroa (Etzegarate)	454,470 AP-8/AP-1eko lotunea Lasarte-Oria	Frantzia
GI-636	Errenteria-Irun (lehengo N-I)	0 GI-20 lotunea Pasaia	17,235 Behobia	Frantzia
GI-11	Lasarte-Donostia (lehengo N-I)	0 N-leko lotunea	2,523 GI-20 lotunea	Donostia
N-121A	Behobia/Nafarroa	68,460 Nafarroa	75,020 Behobia	Frantzia

III. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUAK

1.– Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
– Etxeetarako gas likidotuak, botiletan sartuak nahiz zisternetan, bai banaketa-guneetara eramateko, bai kontsumitzaileei banatzeko	ADRan ezarritakoak.
– Gasolindegia hornitzeko gaiak.	ADRan ezarritakoak.
– Errepide-garraioko ibilgailuak hornitzeko erregaiak, kontsumo propioko zentroetara zuzenduta	ADRan ezarritakoak.
– Trenbide-garraioa hornitzeko erregaiak	ADRan ezarritakoak.
– Itsasontziak eta aireontziak hornitzeko helburua duten portuetara eta aireportuetara zuzendutako erregaiak.	ADRan ezarritakoak.
– Etxeko berogailuetarako gasolioak.	ADRan ezarritakoak.
– Osasun-zentroek funtzionatzeko beharrezkoak dituzten gasak eta partikularrei etxean osasun-laguntza emateko garraiatzen zaizkien gasak, baita, helburu berarekin, banaketa-biltegieta eramaten direnak ere. Beti egiaztatu behar da garraioaren helburuak horiek direla.	ADRan ezarritakoak.

2.– Salbuespena eskatu eta justifikatzen bada.

Salgaiak	Garraiatzeko baldintzak
– Industria-guneen funtzionamendurako behar-beharrezkoak diren salgaiak.	ADRan ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Osasun-zentroetatik ateratzen diren edo haietan sartzen diren produktuak, 1. atalean jasota ez daudenak.	ADRan ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Portuetara zein portuetatik eta aireportuetara zein aireportuetatik garraiatzen diren salgai arriskutsuak, debekatutako egunetan zirkulatu behar badute nahitaez.	ADRan ezarritakoak eta baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Pirotekniako materialak.	Baimena ematerakoan agintzen direnak.
– Beste edozein gai, salbuespenezko kasuetan garraiatzea nahitaezkoa bada.	Baimena ematerakoan agintzen direnak.

IV. ERANSKINA

SALGAIK ORO HAR

Beti eta salbuespenik eskatu beharrik gabe:

– Animaliak bizirik garraiatzeko.

– Azokak, erakusketak, ikuskizunak eta bestelako ekitaldiak (kirol, kultura, hezkuntza edo politika arlokoak, alegia) instalatzeko zama-ibilgailuak.

– Soil-soilik prentsa garraiatzen dutenak.

– Posta eta telegrafoak garraiatzen dituztenak.

– Ikus-entzunezko komunikabideen unitate mugikorak garraiatzen dituztenak.

– Garraiatzen diren salgaiak herriz herri saltzeko bereziki egindako ibilgailuak.

– Larrialdietarako ibilgailuak.

– Hutsik datozen ibilgailuak, aurretik aipatutako garraio-motei lotuta.

– Errepidean laguntza-zerbitzua emateko garabiak (V-24 seinalea), bakar-bakarrik beren basetik gertakariaren lekura joateko edo ibilgailua istripuaren lekutik edo matxuratuta dagoen lekutik ibilgailua utzi behar den lekura eramateko eta basera hutsik itzultzeko.

– Laguntza-ibilgailuak, edo premia-premiazko zerbitzuen oinarrizko instalazioetan konpontze-lanak egiteko beharrezko materiala garraiatzeko ibilgailuak (linea elektrikoa, gas, urak, telefonia, komunikaziotarako zuntz optikoa).

– Negualdian, errepideen bidezaintza mantentzeko material urtugarriak garraiatzen dituzten ibilgailuak.

– Zerbitzu-makina autopropultsatutako eta garabi jasotzaileak, gertakaria izan den lekuan presaz eta berehala agertu behar den kasuetan, zerbitzua zirkulazio baimen osagarri bati lotuta dagoenean, eta ezinbestekoa da baimen horietako baldintzetan jasota dagoen abisatzeko betebeharra betetzea.


– Salgai galkorrak erregulatutako tenperaturan garraiatzea, salgai galkorren garraioari buruzko nazioarteko Akordioaren (ATP) 3. eranskinean ezarritakoaren arabera, baita fruta eta barazki freskoak ATPren 1. eranskinean adierazitako arauekin eta definizioekin bat datozen ibilgailuetan garraiatzea ere. Hala ere, ibilgailuak karga erabilgarriko daukan edukieraren erdia gutxienez izan behar dute salgai galkorrek, edo ibilgailuak karga erabilgarriko daukan bolumenaren erdia bete behar dute.

V. ERANSKINA

SALGAI ARRISKUTSUEN IBILBIDEEN SAREA (SAIS)

Salgai arriskutsuen garraioa oro har.

Bidea	Ibilbidea
AP-8	0 KP (Behobia) / 106 KP (A-8/N-240 El Gallo lotunea)
AP-8 (HMS)	112,840 KP (AP-68 Venta Alta lotunea)/ 129 KP (N-644 Portua lotunea).
A-8	106 KP (AP-8/N-240 El Gallo lotunea)/ 110,5 (A-8/BI-625 Basauri lotunea).
A-8	126,5 KP (A-8 Trapagaran lotunea)/ 139,2 KP (Kantabria)
BI-10 (lehengo A-8)	122,5 (BI-30 Gurutzeta lotunea)/ 126,5 (A-8 Trapagaran lotunea)
BI-30 (lehengo N-637)	8 KP (BI-10 Gurutzeta lotunea) / 28,8 KP (AP-8 Erletxe lotunea)
AP-68	2,2 KP (AP-8 Venta Alta lotunea) / 77,7 KP (Errioxa)
BI-625	382,6 KP (AP-68 lotunea) / 386,6 KP (A-8 lotunea)
N-622	4 KP (Vitoria-Gasteiz) / 23 KP (AP-68 Altube lotunea)
AP-1	77 KP (Burgos) / 83 KP (N-1 Armiñon lotunea)
A-1	321 KP (Burgos) / 329 KP (Trebiñuko muga, Armiñón)
A-1	336 KP (Trebiñuko muga, Iruña Oka) / 391 KP (Nafarroa)
N-I / A-1	405,5 KP (Nafarroa, Etzegarate) / 454 KP (AP-8 lotunea)
AP-1	146,194 KP (AP-8 Eibar lotunea)/ 133 KP (A-636 Bergara lotunea)
AP-636	0,00 KP (N-I Beasain lotunea)/ 22,772 (AP-1 Bergara lotunea)
A-15	139,8 KP (Nafarroa, Berastegi) / 169,314 KP (Astigarraga lotunea).



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SALGAI ARRISKUTSUEN IBILBIDEEN SAREA

VI. ERANSKINA

2026. URTEAN ERREPIDEKO OBRAK ETETEA TRAFIKOAREN EZAUGARRI
BEREZIENGATIK.

Ibilgailu ugariren joan-etorrien ondorioz eta 2026 urterako aurreikusitako trafiko-operazioen ondorioz, Trafiko Zuzendaritza eta errepideen organismo titullarrak elkarrekin koordinatuko dira hauexek egiteko:

A) Zirkulazio-plataformari eta eragin-eremuari eragiten dieten obrak eteteko:

Noiztik		Noiz arte	
Eguna	Ordua	Eguna	Ordua
Martxoaren 18a	15:00	Martxoaren 19a	24:00
Apirilaren 1a	15:00	Apirilaren 2a	24:00
Apirilaren 6a	08:00	Apirilaren 6a	24:00
Ekainaren 27a	15:00	Ekainaren 28a	24:00
Uztailaren 24a	15:00	Uztailaren 25a	24:00
Uztailaren 31	15:00	Abuztuaren 1a	24:00
Abuztuaren 28a	15:00	Abuztuaren 29a	24:00
Urriaren 9a	15:00	Urriaren 10a	24:00
Urriaren 12a	08:00	Urriaren 12a	24:00
Azaroaren 1a	08:00	Azaroaren 1a	24:00
Abenduaren 4a	15:00	Abenduaren 6a	24:00
Abenduaren 8a	08:00	Abenduaren 8a	24:00

B) Zirkulazio-plataformari eragiten dioten obrak eteteko:

Asteburuetan, ostiraleko 15:00etatik igandeko 24:00etara, errepideen organismo titullarrek arrazoi justifikatuengatik berriazko jakinarazpena egiten ez badute.